Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko urtarrilaren 13a, ostirala — 9 — Viernes, a 13 de enero de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ANOETAKO UDALA

*Iragarkia*

Anoetako Udalak, 2022ko urriaren 27an eginiko Udalbatzarrean, Azterketa eskubideengatiko tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala behin behinean onartu zuen.

Behin-behineko iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2022ko azaroaren 7an argitaratu zen, 210 zkia; inolako alegaziorik aurkeztu ezean, testu osoa argitaratzen da dagokion ondorioetarako:

*Azterketa eskubideengatiko tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala.*

### I. OINARRIA ETA IZAERA

*1. artikulua.*

11/1989 arauaren 15etik 18 bis arteko artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, uztailaren 5ekoa, Gipuzkoako Tokiko Ogasunak arautzen dituena, Anoetako Udalak «Azterketarako eskubideengatik tasak» zehaztu ditu, zeinak Zerga Ordenantza honen bitartez arautuko diren.

### II. ZERGA EGITATEA

*2. artikulua.*

Tasaren zerga egitatea osatzen dute:

a) Anoetako Udalak deitzen dituen lehiaketetan, oposizioetan eta oposizio-lehiaketetan (libreak edo mugatuak) hautagai gisa parte hartzeko eskabidea, funtzionarioen lanpostu hutsak edo aldi baterako lan-kontratu finkoko lanpostuak jabetzan betetzeko.

b) Kontratazio-zerrendak edo lan-poltsak sortzen dituzten hautaketa-prozesuetan hautagai gisa parte hartzeko eskabidea, baldin eta zuzeneko deialdien bidez egiten badira eta gutxienez ariketa bat egitea badakarte.

### III. SUBJEKTU PASIBOA

*3. artikulua.*

Subjektu pasibo zergadunak dira lehiaketarako, oposizioetarako eta lehiaketa-oposizioetarako hautagai gisa aurkezten diren pertsona fisikoak, libreak edo mugatuak izan, eta kontratazio-zerrendak edo enplegu-poltsak sortzen dituzten hautaketa-prozesuetan parte hartzen dutenak, baldin eta Anoetako Udalak deialdia egiten badu funtzionarioen edo lan-kontratuko langile finkoen, mugagabeen edo aldi baterakoen lanpostu edo plaza hutsak betetzeko.

Ez dira subjektu pasibo izango, eta, beraz, ez dute tasa hau ordaindu beharko, karrerako funtzionarioak edo lan-kontratuko langile finkoak izanik, barne-sustapeneko hautaketa-prozesuetan hautagai gisa izena ematea eskatzen dutenak, edo lanpostuak behin betiko betetzeko lehiaketetan edo beste deialdi batzuetan parte hartzen dutenak.

## AYUNTAMIENTO DE ANOETA

*Anuncio*

El Ayuntamiento de Anoeta en sesión celebrado el día 27 de octubre de 2022 aprobó provisionalmente la Ordenanza Fiscal reguladora de la Tasa por derechso a examen.

El anuncio provisional fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa con fecha 7 de noviembre de 2022, n.º 210, al no presentarse alegación alguna, y a los efectos oportunos, se publcia el texto íntegro;

*Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por derechos a examen.*

### I. FUNDAMENTO Y NATURALEZA

*Artículo 1.*

Al amparo de lo previsto en los artículos 15 a 18 bis de la Norma 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, el Ayuntamiento de Anoeta establece la «Tasa por derechos a examen», que se regirá por la presente Ordenanza Fiscal.

### II. HECHO IMPONIBLE

*Artículo 2.*

Constituye el hecho imponible de la tasa:

a) Solicitud para concurrir como aspirante a concursos, oposiciones y concursos-oposiciones, sean de carácter libre o restringido, que convoque el Ayuntamiento de Anoeta, para cubrir en propiedad, plazas vacantes de funcionarios/as, o puestos de trabajo laborales con carácter fijo indefinido a temporal.

b) La solicitud para concurrir como aspirante a procesos selectivos que se convoquen, que generan listas de contratación o bolsas de empleo, siempre y cuando se realicen a través de convocatorias directas y conlleven la realización de, al menos, un ejercicio.

### III. SUJETO PASIVO

*Artículo 3.*

Son sujetos pasivos contribuyentes las personas físicas que concurran como aspirantes a concurso, oposiciones y concursos-oposiciones, sean de carácter libre o restringido y a procesos selectivos que generen listas de contratación o bolsas de empleo, que convoque el Ayuntamiento de Anoeta para cubrir puestos o plazas vacantes de personal funcionario o personal laboral fijo, indefinido o temporal.

No poseen la condición de sujetos pasivos y, por tanto, no quedan sujetos a la presente tasa, aquellas personas que, ostentando la condición de funcionarios/as de carrera o personal laboral fijo, soliciten la inscripción como aspirantes en los procesos selectivos de promoción interna, o participen en concursos u otras convocatorias dirigidas a la provisión definitiva de los puestos de trabajo.

EK\CV GAO-I-2022-08606

IV. ZERGAREN KUOTA

*4. artikulua.*

Hautagai, oposiziogile edo lehiakide bakoitzak 20 euroko kuota ordaindu beharko du.

Azterketaren kopiak: 7euro azterketa bakoitzeko, galdera-koadernoaren kopia, erantzun-orriaren kopia eta, hala badagokio, zuzenketa-irizpide orokorrak edo erantzun zuzenen txantiloia barne.

Akta-ziurtagiriak: 7 euro/ziurtagiria. Ziurtagiriak banakakoak izango dira beti.

V. SORTZAPENA

*5. artikulua.*

Dagokion espedientearen prestakuntzan parte-hartzeko betebeharrak ezartzen du.

Hautaketa-probetan izena emateko eskabidea egiten den unean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra.

Inskripzio-eskaera hori ez da izapidetuko tasaren zenbatekoa ordaindu arte.

Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik hautaketa-prozesua gauzatzen ez bada, dagokion zenbatekoa itzuli beharko da.

Ez da inolako itzulketarik egingo hautaketa-probetatik kanpo geratuz gero, interesdunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.

VI. LIKIDAZIOA ETA DIRU-SARRERA

*6. artikulua.*

Ordenantza honetan araututako tasa autolikidazio erregimenean eskatuko da.

Lortu nahi den plaza bakoitzeko tasa nominala eta banakakoa dagokion deialdian eskabideak aurkezteko ezarritako epearen barruan ordainduko da, deialdian adierazitako finantza-erakundeen edozein kontutan sartuta, eta ez da onartuko epe horretatik kanpo ordaintzea.

Izangaiak hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidearekin batera sarrera-ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Tasa ordaintzen ez bada, ez da onartuko hautatze-probetarako izangaia izatea.

*Xedapen gehigarria.*

Ordenantza Fiskal honetako edukiak, arrazoi sistematikoengatik indarrean dagoen legeriaren eta beste garapen-arau batzuen alderdiak erreproduzitzen badituzte, automatikoki aldatzen edota ordezten direla ulertuko da, horien sorburu diren lege-manuen eta erregelamenduen aldaketa errepikatzen den unean.

*Azken xedapena.*

Behin betiko onespenaren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra ordenantza fiskal honek, eta aldatu edo indargabetu arte mantenduko da.

Anoeta, 2022ko abenduaren 22a.—Pedro M.ª Estanga Lasa, alkatea. (8406)

IV. CUOTA TRIBUTARIA

*Artículo 4.*

La cuota a satisfacer por cada uno/a de los/as aspirantes, opositores o concursantes será de 20 euros.

Copias de examen: 7 euros/examen, incluyendo copia del cuadernillo de preguntas, copia de la hoja de respuestas y, en su caso, criterios generales de corrección o plantilla de respuestas correctas.

Certificaciones actas: 7 euros/certificación. Las certificaciones serán siempre individuales.

V. DEVENGO

*Artículo 5.*

Determina la obligación de contribuir la formación del respectivo expediente.

El devengo de la tasa se producirá en el momento de la solicitud de inscripción en las pruebas selectivas.

Dicha solicitud de inscripción no se tramitará mientras no se haya hecho efectivo el importe de la tasa.

Cuando por causas no imputables al sujeto pasivo no se lleve a cabo el proceso selectivo, procederá la devolución del importe correspondiente.

No procederá devolución alguna en los supuestos de exclusión de las pruebas selectivas por causas imputables al interesado.

VI. LIQUIDACIÓN E INGRESO

*Artículo 6.*

La tasa regulada en esta Ordenanza se exigirá en régimen de autoliquidación.

El abono de la tasa, nominal e individualizada por cada plaza a la que se opta, se efectuará dentro del plazo de presentación de solicitudes determinado en la correspondiente convocatoria, mediante el ingreso en cualquiera de las cuentas de las entidades financieras indicadas en la convocatoria, no admitiéndose el pago fuera de dicho plazo.

El/la aspirante deberá presentar justificante del ingreso junto con la solicitud para concurrir al proceso selectivo.

La falta de pago de la tasa determinará la inadmisión del aspirante a las pruebas selectivas.

*Disposición adicional.*

Los preceptos de esta Ordenanza Fiscal que, por razones sistemáticas reproduzcan aspectos de la legislación vigente y de otras normas de desarrollo, se entenderá que son automáticamente modificados y/o sustituidos, en el momento en que se reproduzca la modificación de los preceptos legales y reglamentos de que traen causa.

*Disposición final.*

La presente Ordenanza Fiscal regirá desde el día siguiente al de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa del acuerdo de aprobación definitiva y se mantendrá hasta su modificación o derogación expresa.

Anoeta, a 22 de diciembre de 2022.—El alcalde, Pedro M.ª Estanga Lasa. (8606)

EK\CV GAO-I-2022-08606